



OLINPIADAK

Bigarren proba bihar: Patinak

Festa giroan hasi ziren Olinpiadak larunbatean, eta bihar izango dute segida. Patin lasterketa mitiko, klasiko eta eta berria egingo dute erdigunean, 21:30etan hasita. ||

LITERATUR SOLASALDIA

'Zaharrak ez zuen hil nahi' liburua aztergai, gaur

Hilabetero bezala, Literatur Solasaldia antolatu dute apirillean ere Udal Liburutegian. Gaizki Zabarteren *Zaharrak ez zuen hil nahi* liburua izango dute aztergai. Ane Mayoz dinamizatzailearekin izango da, euskeraz, 19:30etatik aurrera. ||

LAB

Buruntzaldeko manifestazioa Hernanin, etzi

Maiatzaren 1ean Hernanin egingo da LAB sindikatuak Buruntzaldean deitu duen manifestazioa, 12:00etan, Plazan. Lema: *Langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan*. ||

GOIZ EGUZKI

Kontzertua, bihar

Goiz Eguzki abesbatzak, Oñatiko Aloña abesbatzarekin batera Koral kontzertua eskainiko du bihar. 1go zatian, Goiz Eguzkiko abesbatzak 7 kanta abestuko ditu, Javier Zubimendik zuzenduta; bakar-lari lanetan Txefe Ormazabal ariko da. Ondoren, beste zazpi abesti kantatuko ditu Aloña abesbatzak; zuzendari Loli Ordoki izango dute eta soinu-jolea Miguel Mari Guridi izango da. Kontzertua Goiz Eguzkiko egoitzan, 19:00etan. ||

Festa, etzi

Maiatzaren 1ean ospakizun eguna dute Goiz Eguzkin: 11:00etan meza, ondoren udaberri jokoetako saribanaketa; segidan, erakusketa; eta bukatzeko luntxa. ||

UDALA

Ikastetxeetako patioak zabalik, herritarrek erabiltzeko

Urumea, Langile eta Elizatxoko ikastetxeetako eraikinek dituzten patioak erabili litezke.

Protokolo bat adostu da parte hartze bilerak eginez, erabilera egokia eta eraginkorra izan dadin.

HERNANIKO ikastetxeetako patio edo eremu publikoak zabalik daude herritarren gozamenerako. Garai batean asko ziren eskola ordutegiaz kanpo, instalazio hauek erabiltzen zituzten herritarrek. Epe batean itxita egon ostean, berriz ere zabalik daudela jakinarazi du Udalak. 2013ko azken hilabeteetan parte hartze prozesua jarri zuen martxan Udalak eta hainbat bilerara egin eta gero, protokolo bat adostu dute. Bilera horietan parte hartu dute: Andoni Pikabea Udaltzainburuak, Kistiñe Lujanbio Hezkuntza Zinegotziak, Urumea, Langile eta Elizatxo ikastetxeetako ordezkariak, Kale Hezitzaileak eta gazte batek.

Protokoloaren helburua da, eskola orduz kanpo, ikastetxeetako patioak modu egokian erabiltzea. Baldintza batzuk ezarri dira, instalazioak modu eraginkorrean erabiltzeko.

Hiru ikastetxe eta Institutua

Erabili litezkeen patio edo eremu publikoak dira: Urumea ikastolako Gay Mur eraikinekoa; Langileko Lau Bidietako eraikinekoa eta Elizatxo ikastolako. Talde antolatuetarako, urte osoko jardueretarako... ere badago aukera. Kasu hauetan ordea, Udalak eta ikastetxeek ezarritako bideak jarraitu behar dira.

Institutuko patioaren kasua ere aztertu du Udalak. Izan ere, eskumena ez da berarena.



Gay Murreko eraikinean, futboleko, esku baloiko eta saskibaloiko aritu liteke, besteak beste.

Eskola garaian zabalik egongo dira: neguan 20:00ak arte, eta udan 22:00ak arte. Opor, asteburu eta jai egunetan 09:00etan irekiko dituzte, eta itxiera ordua berdina izango da.

Protokolo hau bertara zabalitzeko asmoa baduela azaldu du, eta Institutuarekin eta Hezkuntza Delegaritzarekin adostu behar dutela.

Ze jardueretarako erabili?

Protokoloari helduta, patioen erabilera egokia izan dadin zenbait jarduera lehenetsi dituzte. Batetik, Kirol praktika. Kirol bakoitza horretarako egokitutako lekuan egin behar da: pelota, pelotalekuan; futbola eta esku-baloia, atek dauden lekue-

tan... Patinajea, gimnasia, dantza... bestelako kirolerako ere erabili litezke patioak, beti ere, arazorik sortzen ez bada. Jolas libre eta komunitarioa praktikatzeko, mahai-jolasetarako eta aisialdirako ere erabili litezke, arazorik sortzen ez bada.

Ordutegia, eskola egunetan eta jai egunetan

Neguko eta udako ordutegia izango dute patioek. Eskola garaia denean, neguan 20:00ak arte egongo dira zabalik; eta udan 22:00ak arte. Asteburuetan, jai egun edo oporretan goizeko 09:00etan zabalduko dituzte patioak, eta itxiera ordua berdina izango da.

Zaintzeko konpromisoa

Bukatzeko, patio edo eremu publiko hauek guztionak di-rela diote, eta hauek behar bezala mantentzea eta txu-

kun edukitzea eragile eta erabiltzaileei dagokiela. Hori horrela, zenbait konpromiso hartu dituzte.

Udala konprometitu da instalazioak txukun mantentzera; arazoak sortzen direnean, irtenbidea ahalik eta azkarren ematera; ordutegiak betetzera eta betearaztera; eta erabakitakoa herritarrei jakinaraztera. Ikastetxeek azaldu dute protokoloen berri eman, eta landu egingo dituztela hezkuntza komunitatean. Erabiltzaileen konpromisoa da instalazioak txukun eta garbi mantentzea; erabiltzaileekin begirunez jokatzeko; iturri publikoak egoki erabiltzea; haurrentzako parkeak adinez egokiak direnak erabiltzea; irekita dauden eremuak bakarrik erabiltzea; eta kalterik edo erabilera okerririk ikusiko balu, ikastetxeei edo Udalarari jakinaraztea. ||

dobera
EUSKARA ELKARTEA

Bazkideak: 8,00 €
Besteak: 10,00 €

Epea izena emateko
Maiatzaren 8a

Laramendi, 11
behera
943 332 799
dobera@dobera.com



☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
• AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
• ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
☩ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbieta 7 943 552941 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA **GAUR** Giro nahasia izango da: lainoak nagusi eta zaparradak han eta hemen. Tenperatura antzeko mantenduko da: Min.11° / Max.17°

BIHAR Aldaketarik ez. Euri gutxiago egingo badu ere, giro iluna espero da. Tenperatura bere horretan: Min.12° / Max.17° (euskaime)

UDALA PLENOA

Berdintasun Plana 2015a arte luzatzea bozkatuko du Plenoak

14 puntu izango ditu aztergai gaur arratsaldean, Udalean bilduko den Plenoak; iluntzeko 19:00etan hasiko da.

MAIATZEKO Plenoa deitu dute gaur iluntzean, Udalean. Hitzordua 19:00etan da, Pleno aretoan, eta bertan bildutako udal ordezkariak 14 puntu izango dituzte aztergai, tartean: II. Berdintasun Planaren luzapena; Udaleko lanpostuen berrazterketa eta Finantzen Euskal Kontseiluak aurkeztutako mozioa.

Berdintasun Plana, 2015era arte luzatzea
Udalak Hernaniko Berdintasun Plana onartu zuen 2010-

Berdintasun plana 2010-2013 bitartean garatzea aurreikusia zuen Udalak. Helburu asko burutu gabe daude oraindik, eta 2015 urte bukaerara luzatzea bozkatuko da.

ean, eta nahia zen, bertan zehaztutakoak 2013rako beteta izatea. Epe hori bukatu bada ere, bertan agertzen diren zenbait helburu oraindik ez dira

burutu. Hori horrela, Berdintasun Plana 2015 urte bukaerara arte luzatu nahi dute.

Udaleko lanpostuak, berrantolatu
Plenoan aztergai izango dute baita ere, Udaleko plantila eta lanpostuen zerrenda aldaketa. Kontua da, Udala berrazterketa bat egiten ari dela udaleko plantila eta lanpostuekin. Plan bat proposatu dute, bakoitza, pixkanaka, bere postuari dagokion egokierara egokitzeko. ||

BOLEIBOLA EMAKUMEZKOEN SUPERLIGA

Esther Lopezek liga irabazi du, Errioxako TRAMEK taldearekin

Liga honekin zortzi ditu irabaziak hernaniarrak. Selektzioarekin da orain eta Europa dute helburu. Ondoren, Brasilerara joango da.

BOLEIBOLEAN goi mailako jokalaria dela erakutsi du, beste behin, Esther Lopez hernaniarrak. Errioxako TRAMEK Murrillo taldearekin Emakumezkoen Superliga irabazi du asteburuan. Eta ez da aurtengo sari bakarra izan; talde berarekin txapeladun izan baita Erreginaren Kopan eta Superkopan.



Emakumezkoetan kirolaren saria eman zioten Esther Lopez, 2013an.

Play Offak, hiru partidutara
Larunbatean jokatu zen Play Offetako hirugarren partidua, Iruñako GH Leadernet eta Errioxako TRAMEK taldearen artean. Esther Lopezen taldeak play offetako aurreneko bi partidua irabazi eta gero, Iruñean jokatu zuten azkeneko. Lehenengo jokoan nagusi izan ziren errioxarrak. Bigarren jokoan hortzak erakutsi zituen Iruñeako taldeak, baina garaipena Lopezen taldearentzat izan zen. Eta hirugarren jokoan, errioxarrak izan ziren nagusi, hasieratik bukaerara. TRAMEK taldearentzat izan zen beraz garaipena. Liga honekin, 8

ditu irabaziak Esther Lopezek.

Europako Txapelketa prestatzen, orain

Liga irabazi berri, helburu zehatzak ditu Esther Lopezek epe motzera. Estatuko Selektzio nagusiarekin entrenatzen da orain, Europako txapelketa sailkapena prestatu eta jokatzeko; maiatza osoan izango da bertan. Ondoren,

Brasilerara joateko asmoa duela azaldu du jokalaria hernaniarrak. Bertako ligan parte hartzeko aukera duela eta, probatzera joango da hernaniarra. Hernaniko boleibol taldeak hernaniarra zoriondu nahi dute: «Hernani mailan ez da erraza izango Esther Lopez osatzen ari den kurrikuluma gainditzea eta errepikatzea. Zorionak Esther! ||

UDALA ONGINTZA

Bi ikastaro maiatzean, haur eta nerabeen gurasoentzat

Helburua da baliabideak ematea heziketan parte hartzeko. Izen ematea, bihar arte.

HAUR eta nerabeen gurasoei zuzendutako bi ikastaro antolatuko ditu Ongintza Patronatuak Biteri kultur etxean. Bost saio izango dira: maiatzaren 6, 20 eta 27an; eta ekainaren 3 eta 10ean.

Ikastaroetako bat 0-9 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzat antolatu dute, eta arratsaldeko 15:00etatik 16:30etara emango dute. Bestea, 10-19 urte bitar-

teko seme-alabak dituztenentzat da, goizez, 11:00etatik 12:30etara.

Ikastaroekin lortu nahi da, gurasoek baliabideak izatea seme-alaben heziketan parte hartzeko. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute alde aurretik, eta azken eguna bihar da. Horretarako: 943 55 78 54 telefonora deitu behar da, eta Ana Goñiren galdera egin. ||

NABARRALDE

Ausa Gaztelura irteera antolatu dute, maiatzaren 1ean

Nabarralde taldeak irteera antolatu du maiatzaren 1ean, Ausa-Gaztelura. Mendi marxa eta mezua irakurtzeko ekitaldia izango da, eta segidan bazkaria. Bazkarirako txartelak erreserbatzeko Hernani Errotzenen egoitzara jo behar da (Ave Maria, 28) edo telefonoz deitu: 943 55 60 11. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I. URTEURRENA
Felix Bakedano Lopez
2013ko apirilaren 29an hil zen, 11 urterekin
Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan
ETXEKOAK
Hernanin, 2014ko apirilaren 29an

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

HERNANI ENGLISH HIZKUNTZAK
(GURE INGELSETXEA)
AZTERKETEN PRESTAKETA
Proficiency (C2); Advanced (C1);
First (B2) eta PET (B1)
Ostegunean (maiatzaren 1ean) ez da eskolarik izango.
Ostirala (maiatzaren 2a) eskola eguna izango da.
Deitu Alan edo Joe **943 33 11 08** Kale Nagusia 41 - 1